



## “Emakumeak espetxean, zailtasun gehiago”

2015eko azaroaren 25a

Eusko Legebiltzarra

### MANUEL LEZERTUA ARARTEKOAREN MINTZALDIA

Eskerrik asko, presidente andrea, zure hitzengatik. Oso pozgarria da guretzat jardunaldi hau Eusko Legebiltzarrekin partekatzea, guztion etxea baita eta bereziki Arartekoarena, ganberaren goi mandataria denez. Gure esker ona helarazi nahi diet hemen gurekin dauden legebiltzarkideei ere.

Agur bero batez hartu nahi ditut Juan Luis Ibarra, Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko presidentea, eta Juan Calparsoro, Euskadiko fiskal nagusia. Ararteko honentzat ohore eta atsegin handia da zuek gure artean izatea.

Orobat, ongietorria eman nahi diet, eta gure esker ona adierazi, Arartekoaren ekimen honekin bat egin nahi izan duten guztiei, garrantzi handiko gai hau eztabaidatzeko: askatasunik gabe eta, bereziki, espetxean dauden emakumeek bizimodu duina egiteko zailtasun gehiago izatea.

Ongietorri berezia Isabelle Rome magistratuari eta, jardunaldiko gaiari buruz beraien esperientziak gurekin partekatzeko asmoz, Arartekoaren ekimen honekin bat egin duten gainontzeko hizlariei.

Dakizuenez, indarkeria-modu anitz erabiltzen dira emakumeen kontra, mundu osoan, emakume izate hutsagatik: hautaketa bidezko abortutik eta neskatoen hilketatik hasi eta, emakumeen salerosketara, tartean direla emakumeei genitalak moztea, esklabotasun sexuala edota etxe barrukoa, sexu-erasoak, behartutako ezkontzak, emakumea prostituzioaren bitartez esplotatzea, laneko sexu-jazarpena, emakumeak beren bikoteek jipoitzea eta hiltzea, emakumeei soilik debekatzen zaizkien portaerengatik heriotza zigorrak jartzea, eta abar.

Jakina, halako gertakarien maiztasuna, baita horien kontra borrokatzeko neurrien eragingarritasuna ere, aldatu egiten dira testuinguru sozial, kultural eta politikoen arabera. Hala ere, munduari begiratu bat emanda, ondorio hau atera dezakegu berehala: emakumeen ahalduntzea zenbat eta handiagoa izan, orduan eta hobe da haien egoera, bai gizartean, bai erakundeetan. Normala da hala izatea, kontuan hartuta horrelako errealitateak, azken batean, gizonen eta emakumeen arteko egiturazko desberdintasun iraunkorrek lotuta daudela, eta genero-sistemak gogor markatutako balio-sistemarekin. Sistema horiek oraindik bizirik diraute gure gizartea eta bizikidetzaren antolatzean nagusitzen den ereduan. Ez da ezustekoa genero-ikuspegi hori, NBEk 1995etik aurrera bere Bejingeko hitzaldian



onartutakoa, diskurtso feministaren lorpen historikoa izatea. Horrek isla bikoitza du gure botere publikoen agendan:

- Alde batetik, emakume izate hutsagatik emakumeen kontra egiten den indarkeria jada ez da hartzen familiako kontu pribatutzat, baizik eta lehen mailako arazo sozial eta politikotzat, betidanik izan beharko zukeen bezala.
- Beste alde batetik, botere publikoek pertsona guztien bizitza, askatasuna eta duintasuna izateko eskubidea babestu behar dutenez gero, arazo horri erantzun nahi badiote, berriro ebaluatu behar dute gizartearen egitura genero-ikerlanak garatzearen argitan.

Horrela bada, ikuspegi horretan oinarrituta lotu zituen Rashida Manjoo andreak -Emakumeen kontrako indarkeriaren arloko Nazio Batuen kontalari bereziak- emakumeek pairatzen duten indarkeria eta mundu osoan bizi dituzten espetxeratze-baldintzak. NBERi 2013ko abuztuaren 21ean aurkeztu zion txostenean egin zuen hori: *Emakumeak espetxeratzearen zergatiak, espetxeratze-baldintzak eta haiei dakarzkien ondorioak*. Txosten horretan oinarritu gara gaur berariaz aztertzeko emakumeen espetxeko egoera. Hiru gauza egiaztatu ditugu:

- 2011n, emakume presoak tratatzeko arauak eta emakume delitu-egileentzako askatasuna kentzen ez duten neurriak (Bangkokeko arauak) onartu zituzten Nazio Batuek. Arau horietan onartzen denez, nazioarteko Zuzenbideko bereizkeriarik ez egiteko printzipioak zigor justiziako eta espetxeetako sistemetan emakumeek dauzkaten arazo zehatzak konpontzera behartzen ditu estatuak. Orduan, honelako gaiak aztertu behar dituzte, besteak beste: aurretiazko biktimizazioa eta espetxearekin duen lotura; espetxeratzearen ordezkio hautabideak; osasun fisiko eta mentala artatzea; segurtasuna; senideekiko harremana; langileak trebatzea; haurdun edota seme-alabekin espetxean dauden emakumeak; emakume presoak birgaitzea eta birgizarteratzea.
- Nazioarteko arauak onartzen dute *“emakumeen kontrako indarkeriak ondorio zehatzak dituela berarentzat zigor justiziaren sistemarekin harremanetan jartzen denean”* eta emakumeen aurkako indarkeria izan daitekeela horiek delitu penaletan nahastu eta gero espetxeratuak izatearen arrazoia.
- Herrialde batzuetan jarduera berriak daude eta sakon eztabaidatzen da paradigma aldaketa baten beharraz, honelako faktoreetan oinarrituta: espetxeratutako emakumeen kopurua izugarri ugaritu izana; lehendik indarkeria jasan duten emakume gehiegi egotea; espetxeratzearen kostu ekonomiko eta sozialak; espetxeratzeak emakumeengan eta beraien familiengan dituzten ondorio kaltegarriak, batez ere emakume gehiagok dauzkatelako gizonezko presoen mende dauden seme-alabak; pilaketaren ondorioak eta espetxeetako baldintza osasungaitzak; emakume presoak geroz eta sarriago autolesionatzea.

Jakina, ezin dira gure espetxeen egoerari aplikatu kontalari bereziak ikusi dituen gabezia guztiak. Alabaina, mahai gainean jarri nahiko nituzke egoera horren gaineko hainbat datu, esanguratsuak iruditzen zaizkidalako.

Hasteko, Espainiak emakume presoan Europako indizerik altuena dauka, espetxeratutako pertsona guztien aldean. Oro har, batez beste, Europan ehun presotatik 5 izaten dira emakumezkoak, 95 gizonezkoak. Mundu osoan, batez beste, ehun emakumetatik 4 daude preso. Espainian ehuneko hori askoz handiagoa da %7,98raino iristen baita. Bestalde, emakume bat espetxeratzeko dutenean hiru zigor nozitzen ditu:

1. Gizarte-zigorra: gizarte osoak gogorrago gaitzesten du emakumea gizona baino hark delitu bat egiten duenean, izan ere, delitua egitean, hautsi egiten ditu emakumeari tradizioz egotzi zaizkion estereotipoak.
2. Zigor pertsonala: emakume presoak familia-deserrotze izugarria jasango du, berak askatasuna galtzean familia desegingo baita (seme-alabak, senarra). Hori ez da beti hala gertatzen espetxeratutakoa gizonezkoa denean, emakumeek betetzen baitute familia estu lotzeko zeregina. Gizonezkoen kartzeletan, familiak presoan lagungarri eta euskarriztat hartzen dituzte, zigorrak dirauen bitartean. Aldiz, emakumeen kartzeletan, familiak galera konponezintzat jotzen dituzte, bete ez den betebeharrak saihestezin bat bezala, abandonatu den zerbait bezala, etengabeko errua sortzen duen arrazoitzat.
3. Espetxean dagoen emakumeak gizonezkoak baino baldintza gogorragoak izango ditu zigorra betetzeko, emakume izate hutsagatik:
  - Askotan, emakume guztiek departamentu bakar batean elkarrekin bizi behar izaten dute, inolako bereizgailurik gabe. Gehienak gizonezkoen espetxe batetik bereizitako departamentu batean bizi behar dutenez gero, emakumeek aukera mugatuagoa izaten dute, edo batere aukerarik ez, espetxeko instalazio komunak erabiltzeko eta haietaz gozatzeko (kiroldegia, liburutegia, ekitaldi aretoa, mintzalekuak, otoitz egiteko aretoa, erizaindegia, lantegiak, e.a.).
  - Emakumeen espetxeetan ekoizpen-lantegi gutxiago dago eta lantegi horiek gutxien ordaindutakoak dira edo gizonezkoen espetxeetan baztertu dituztenak. Ez dute inolako lan-gaitasunik eskatzen eta ez dute prestakuntzarik ematen emakume horiek askatasuna lortzean lan-merkatuan sar daitezen. Aitzitik, gizonei lan-merkatuan balio duten lanak eskaintzen zaizkie: zurgintza, margolaritza, arte grafikoak, koadernaketa, eraikuntza, eta abar.

- Gizonek baino aukera gutxiago izaten dituzte hirugarren gradua lortzeko, arrazoi sinple batengatik: emakumeentzat hirugarren graduako departamentu gutxiago daudelako. Haatik, delitu motak eta arriskugarritasuna kontuan hartuta, halako gehiago eman beharko litzaizkieke emakumeei.

Gai horiek aipatu nahi nituen, besterik gabe, izan ere, horietan denetan sakonduko dute, ziur nago, gaur gurekin dauden adituek. Edonola ere, bukatzeko, gehixeago zehaztu nahi dut botere publikoek indarkeria matxistaren aurrean duten erantzukizuna, nire mintzaldiaren hasieran aipatu dudana.

Denok ohartzen gara genero-indarkeriaren kontrako borroka ez dagokiela erakundeei bakarrik, baizik eta gizarte osoari. Gizarteak erakutsi behar du gaitzespena honelako ekintzen aurrean: emakumeenganako mespretxuzko edo bereizkeriazko edozein adierazpen, sexuen arabera zeregin estereotipatuak ematea, neskak eta emakumeak bigarren mailako zereginetara, erabakitzeke ahalmenik gabeetara baztertzea. Gizarteak, aitzitik, apustu egin behar du emakumeek beren bizitzen burujabe izan daitezen, emantzipatu, parte hartu eta protagonismo aktiboa izan dezaten, eskubide osoko herritar gisa, arlo guztietan.

Horregatik, ez da alferrikakoa gogoraraztea zergatik aukeratu zuen NBEk azaroaren 25a gaur hemen bildu gaituen eguna oroitzeko. Hain zuzen, egun hartan hil zituztelako Mirabal ahizpak, Leónidas Trujillok Dominikar Errepublikan 30 urtez baino gehiagoz ezarri zuen diktaduraren kontra aritu ziren hiru militante baitziren. Xehetasun hori gogoan izan behar da, NBEk egun horri mundu osoan eman nahi izan zion garrantziaren adierazgarri delako. Izan ere, emakumea biktima pasibotzat hartzen duen estereotipoaren kontra –hori oso gertu dago etxe barruko indarkeria “bikotekideen arazoek” testuinguruan tratatzen zuen tradiziozko ikuspegi paternalistatik-, egun horrek emakume aktiboez hitz egiten digu, emakume borrokalariez, komunitatearekin duten konpromisoan protagonista diren emakumeez. Konpromisoa justiziarekin eta emakumeak ahaldunduz dituen berdintasunarekin, eta, azken batean, guztiok libre egiten gaituenarekin.

Mila esker denoi / Gracias a todos / Mes remerciements chaleureux à tous ceux qui sont venus, nombreux, à ce séminaire organisé par le Défenseur du Peuple Basque